

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Epatzea

Urizaharreko Administrazio Batzarreko Abilio Alfageme Bragado lehendakariaren 2019ko urriaren 15eko ebazpen bidez, ebatzi zen Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2 zk.ko Epaitegiaren aurrean aurkeztea, administrazioarekiko 388/2019 auzi errekurtsioan. Errekurtsio hori Fernando Samaniego Aberasturik jarri zuen administrazio batzarraren aurka, Santa Eulalia kalea lehendik zegoen zabalera itzultzeko (nekazaritzako makinak pasatu ahal izateko) eskaera isiltasun negatiboz ezetsi zelako.

Iragarki honen bidez jakinarazten zaie balizko interesdunei eta, halaber, jakinarazten zaie 9 egun dituztela, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako epaitegian agertzeko, beren legezko interesak aldezteko.

Urizaharra, 2019ko urriaren 30a

Lehendakaria

ABILIO ALFAGEME BRAGADO